

Martin Ugalde, idazlea eta kazetaria: "Azken hamabi urteetan euskarak ez du inongo paradisurik aurkitu"

Amagoia Iban

Argia, 1.427. zk., 1993-03-21: 31.

ARGIA.- AEK-k Korrika 8 dela eta omenaldi bat eskaintzen dizu eta zure euskarazko idazlanen bilduma argitaratuko du. Zer garrantzi du omenaldi honek zuretzat?

MARTIN UGALDE.- Garrantzi handia. "Erroetatik Mintzo" bilduma ez da lehena, iaz ere Bartzelonako argitaletxe batek nire erdarazko lanen bilduma kaleratu zuen. Baina aurtengoa hunkigarria da oso. Euskararen alde hainbeste egiten ari den AEK-k omenaldi hau eskaintzea ohore bat da niretzat.

Bestetik, sakabanatuak zeuden nire zazpi euskarazko lanak biltzeko aukera eman didate, eta hori eskertzekoa da.

A.- Inork gutxi euskaraz idazten zuenean zuk liburuak idatzi zenituen.

M.U.- "Erroetatik Mintzo"ko hitzaurrean Koldo Izagirrek ongi esaten duen bezala, euskaldunentzat euskaraz idazten dut, baina erdaldunentzat kriolloa erabili nuen, Venezuelan bainintzen garai hartan.

A.- Egun egoera desberdina da. Helduen euskalduntze prozesua hor dago.

M.U.- Gaur egungo egoera hobea da. Ni haurra nintzela badakit nola zegoen euskara, baita Errepublika garaian ere. Franko garaian ere ikusi dugu nola erabili eta zanpatu duten euskara.

Azken hamabi urteetan ez dugu inolako paradisurik aurkitu. Oraindik euskarak lan asko ditu eta ez ditu behar adina laguntza jasotzen. Hala ere, eta egitekorik asko egon arren, euskarak ez du inoiz izan egun duen maila.

A.- Zer garrantzi du Korrikak egoera hori hobetzen?

M.U.- Garaia du euskarak pausoak ematen hasteko. Hobeto esanda, hasia da pauso horiek ematen. Orain korrika hastea falta zaio. Korrika egin behar du, Euskal Herria osoan AEK egiten ari den bezala, gauzak aurrera ateratzeko eta gure euskarak duen martxa korrika hartzeko.

A.- Zer deritzozu euskal instituzioek bide horretan betetzen duten lanari?

M.U.- Zartatekoak ematen ari zaizkio euskarari. "Egunkaria"rekin ere berdin egiten dute. Alderdikeriak eta politika erabiltzea nahiago dute euskara salbatzea baino. Hainbat jokabidek erakusten dute zenbat politikeria sartuta dagoen euskararen estuasunaren munduan.